

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p><b>IL0137</b></p>	<p><b>Kotizaziorik gabeko baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak</b></p>
---	----------------------	--

## ZER DA? ZERTARAKO DA?

Adinaren edo ezintasunaren ondorioz behar adinako baliabideak ez dituzten eta kotizatu ondorengo pentsiorako eskubiderik ez duten pertsonentzako prestazio ekonomikoak dira.

Modalitate horren barruan prestazio hauek daude:

- Kotizaziorik gabeko baliaezintasun-pentsioak
- Kotizaziorik gabeko erretiro-pentsioak
- Alokairuarengatiko osagarria Kotizaziorik gabeko pentsiodunei.

## NORK ESKA DEZAKE?

- Kotizaziorik gabeko baliaezintasun-pentsioa:

Udalerrian erroldatuta dauden 18 urtetik gorako eta 65 urtetik beherako pertsonak, %65eko edo hortik gorako ezintasuna aitortuta dutenek eta behar adinako errentarik edo diru-sarrerarik gabeek.

Kotizaziorik gabeko erretiro-pentsioa:

Udalerrian erroldatuta dauden 65 urtetik gorako pertsonak, behar adinako errentarik edo diru-sarrerarik gabeek %65eko edo hortik gorako ezintasuna aitortuta dutenak eta behar adinako errentarik edo diru-sarrerarik gabeak, legez bizi direnek eta 10 urteetan horrela egin dutenek, 16 urtetik pentsioa eskatzen denera arte. Horietatik 2, jarraitukoak edo eskariaren aurreko bi urteak izan beharko dira.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E120 Dokumentu zerrenda kotizaziorik gabeko pentsioak eskatzeko](#)
- [E130 Doako Pentsiorako Eskabidea](#)
- [E132 Banku helbideratze fitxa BFA](#)
- Eskatzailearen eta familia unitateko 14 urtetiko gorako gainerako kideen Nortasun Agiri Nazionala, pasaportearen edo Bizileku Baimena.
- Errolda ziurtagiri kolektiboa. Ofizios erantsiko da.
- Etxebizitzaren alokairurako laguntza eskatuz gero, alokairu kontratua.

## NON ESKATZEN DA?

**Aurrez aurre:**

- [Udaletxea](#)  
Udaletxea  
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO  
Ordutegia: 7:30 - 15:00

---

**Posta arrunta:**

- Udaletxeko posta arrunta  
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

## ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

## PROZEDURAREN EPEA

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete  
Isiltasun-administratiboaren izaera: Aldekoa

## ARAUDI APLIKAGARRIA

- [118/1998 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, martxoaren 15eko 357/1991 Errege Dekretua aldarazten duena, Gizarte Segurantzaren sistemaren kotizaziorik gabeko pentsioetarako eskubideari begirako baldintzak egiaztatzeari dagokionez](#)
- [Abuztuaren 3ko 1191/2012 Errege Dekretua, modalitate ez kontributiboan Gizarte Segurantzako pentsionisten alde etxebizitzaren alokairurako pentsio osagarria onartzeko arauak ezartzen dituena.](#)
- [8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzako Lege Orokorren testu bategina onartzen duena](#)

## ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu
2. Erregistratu, eskaneatu eta interesatuari kopia eman
3. Espedientea Bizkaiko Foru Aldundira bidali, ebazpenerako.

## NORK ONARTU BEHAR DU?

Bizkaiko Foru Aldundia

## IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

## OHARRAK